

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

411/2026 Foru Agindua, irailaren 2koa. Arabako Arratzua-Ubarrundia eta Vitoria-Gasteiz udalerrietako lurzoru urbanizaezinean, Ekian berri parke fotovoltaikoaren plan berezia onesteko prozeduraren aurreko izapidea

Noryeste izeneko putzua ureztatzeko azpiegitura hidrauliko bat da, ura biltzeko eta Noryeste Ureztatzaileen Elkartea hornitzeko helburuarekin eraikia; Arabako Foru Aldundiak sustatu zuen proiektua eta 2004an amaitu zen, iragazketa arazo larrien ondorioz ezin izan zelako bete. Horren ondorioz, lurzoru gaur egun eremu oso antropizatuta bilakatu da, eta ez du betetzen sortu zeneko funtzioa.

Gutxi gorabehera 41 hektareako azalerakoa da, eta eguzki baliabide ona du; beraz, energia fotovoltaikoko instalazioak garatzeko espazio potentzialki egokia izan liteke.

Gauzak horrela, Mondragon Korporazioko Krean enpresak, Energiaren Euskal Erakundearekin (EEE) eta Arabako Foru Aldundiarekin batera, Ekian Berri eguzki instalazio fotovoltaikoaren proiektua sustatzen du. Proiektu horren helburua da energia garbia sortzea inguruko enpresa eta administrazio publikoentzat, 26,565 MW-ko potentzia izendatua izango duena eta urtean 35.300,16 MWh inguruko potentzia izango duena. Horrela, enpresa horietako bakoitza lortutako ekoizpen elektrikoaren zati baten jabe izango da, ekoizpena horien energia kontsumoarekin lotzeko.

Proiektua Arratzua-Ubarrundia eta Vitoria-Gasteiz udalerrietako lurzoru urbanizaezinean kokatuko da.

Sustatzailea instalazio horren izapidetze sektoriala egiten ari da Arabako Industria Administrazioaren Lurralde Ordezkaritzan, Euskal Autonomia Erkidegoan energia elektrikoa ekoizti, garraiatu eta banatzeko instalazioen administrazio baimenerako prozedurak arautzen dituen martxoaren 31ko 48/2020 Dekretuan ezarritakoaren arabera.

Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testuategina onesten duen 7/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa eta 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzko 105/2008 Dekretua aplikatuz, beharrezkoa da plan berezi bat izapidetzea, instalazio horren hirigintza ahokatzeko ziurtatzeko.

Plan bereziaren antolamenduaren xede den eremuak bi udalerriri eragiten dienez, 2026ko abuztuaren 7an, Ekian Berri, EIEk eskaera bat aurkeztu zuen, Arabako Foru Aldundiak dagozkion kontsultak egin zitzaizkion, inplikaturako udalen batek haren izapidetzea bere gain hartu nahi badu eta, beharrezkoa izanez gero, organo izapidegile gisa eratu dadin.

Aurrekari horiei aplikagarri zaizkie zuzenbideko oinarri hauek:

Lehenengoa. Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailak du aztergai den espedientearen ebazteko eskumena, Arabako Foru Aldundiaren Gobernuari, Antolamenduari eta Araubide Juridikoari buruzko martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauan eta Arabako Foru Aldundiaren sailen egitura 2023-2027 legegintzaldirako zehazten duen diputatu nagusiaren ekainaren 30eko 152/2023 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera.

Bigarrena. Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen Testuategina onesten duen urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 13.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lurralde eta hirigintza antolamenduak urbanizazioaren bidez eraldatetik babestu duen landa kokapeneko lurzoruan, "salbuespen gisa eta lurralde eta hirigintza antolamenduaren legerian aurreikusitako

prozedura erabiliz eta baldintzak betez, zilegi izango da berariazko jarduera eta erabilera batzuk legitimatzea, baldin eta interes publikoa edo soziala badute, landa antolamenduari eta garapenari ekarpenak egiten badizkiote edo landa ingurunean kokatu beharrekoak badira”.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak bere 28.5.a) artikuluan xedatzen duenez, lurzoru urbanizaezinean egin ahal izango dira, berariaz eta eskusiboki, aplikatzekoa den legeria sektorialak edo lurralde plangintzak interes publikokotzat jotako zuzkidurak, ekipamenduak eta jarduerak ezartzera bideratutako jarduketak, baldin eta, kasu zehatzetan, interes publikokotzat jotzen badira dagokion foru aldundiaren ebazpen bidez, hogeieguneko jendaurreko informazioaren izapidea bideratu ondoren.

Agindu hori ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren 4. artikulua garatzen du, eta horren arabera:

“2. Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 28.5.a) artikuluan adierazitako jardunak berariaz eta soilik honako honetara bideratuko dira: hirigintza plangintzarekin bat etorritik, landa inguruaren ordenamendurako eta garapenerako lagungarriak izateagatik edo aplika daitekeen sektore legediak edo lurralde plangintzak interes publikokotzat deklaratu dituelako, landa inguruan kokatu behar diren zuzkidura, ekipamendu eta jarduerak ezartzera. Adierazitako zuzkiduren, ekipamenduen eta jardueren ezarpen jakin bakoitzak dagokion foru aldundiaren ebazpen bidez interes publikokotzat deklaratu izan beharko du, jendaurrean agertzeko hogeieguneko izapidearen ondoren.

3. Aurreko paragrafoan adierazten diren eta, gainera, ingurumen inpaktuaren banakako deklarazioa behar duten jardunak eta 5.000 metro karratu baino gehiagoko lurzoruak eraginpean hartzen dituzten jardunak baimentzeko, gehigarri gisa, plan berezi bat idatzi eta onartu beharko da, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 59.2.c.7 artikuluan adierazten denarekin bat etorritik. Plan hori behin betiko onesteko ahalmena foru aldundiak baldin badu, interes publikokoa dela adierazten duen deklarazioa inplizituztat hartuko da, betiere aurretiaz plana jendaurrean jakinarazi baldin bada”.

Ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren 4.3 artikuluekin lotuta 4.3 artikuluan xedatzen denez, ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 28.5.a) artikuluan jasotako jardunak baimentzeko, eta gainera ingurumen inpaktuaren banakako deklarazioa behar duten jardunak edo 5.000 metro karratu baino gehiagoko lurzoruak eraginpean hartzen dituzten jardunak baimentzeko, modu osagarrian plan berezi bat idatzi eta onetsi beharko da ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 59.2.c.7 artikuluan esandakoarekin bat etorritik.

Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Legearen 59.2.c.7 artikuluan, azpiegiturak, zuzkidurak eta ekipamendua ezarri eta zehaztea helburu duten plan bereziak aipatzen dira; bada, artikulua esaten duenez, plan horiek 28. artikulutan jasotzen diren mugaketak errespetatu beharko dituzte, lurzoru urbanizaezinari eragingo badiote.

Horregatik guztiagatik, plan berezia hirigintza figura egokia da Ekian Berri parke fotovoltaiakoaren hirigintza antolamenduaren barruan sartzeko.

Hirugarrena. 2/2006 Legearen 97.1 artikulua adierazten du plan bereziak plan partzialetarako ezarritakoarekin bat etorritik egin, izapidetu eta onetsi behar direla. Gainera, 95.1 artikulua ezartzen du plan partziala egitea, printzipioz, udalei dagokiela eta pertsona fisikoek edo juridikoek ere egin dezaketela.

2/2006 Legearen 95.5 artikuluan xedatzen denez: “3.000 biztanle edo gutxiago duten udalerrien kasuan, behin-behineko onespina emateko erabakia hartu ondoren, 10 eguneko epea egongo da –erabakia hartu denetik– plana dagokion foru aldundira bidaltzeko, behin betiko onar dezan. 3.000 biztanletik gorako udalerrietan, udalaren bigarren onespina behin betiko onespina izango da”.

Ez dago martxoaren 6ko 2/2006 Legearen 5/1998 Legearen 4.2 artikuluan jasotzen zenaren antzeko erregulaziorik. Hartan zehazten zen udalaz gaindiko plan partzialak eta bereziak direnean, hasierako eta behin-behineko onespina emateko eskumena, eraginpeko udalerrien artean akordiorik ez dagoenean, dagokion foru aldundiari dagokiola, ez bada zenbait lurralde historikotako udalerriei eragiten diela. Halakoetan, eskumena Eusko Jaurlaritzarena litzateke.

Legezko hutsune hori judizialki ebatzi da antzeko moduan udalerri bati baino gehiagori eragiten dieten plan berezientzat 2/2006 Legearen 92. artikuluan plangintza orokorra bateragarri egiteko planentzat ezarritako eskumen arauak aplikatuz.

EAEko Auzitegi Nagusiak 2009ko irailaren 16ko 573/2009 Epaian hauxe dio: “Ondorio horiek ez dute nahi esan udalaz gaindiko azpiegituren plan berezirik onetsi ezin denik (- albo batera utzi gabe Eusko Jaurlaritzako edo foru administrazioko sail bati dagokion sektore eskumenarekin egindakoak, 2/2006 Legearen 97.2 artikuluan aipatutako plan bereziak -), baldin eta eraginpeko udalerriak ados ez badaude eta egun indarrean dagoen legeriarekin bat etorritz, izan ere, 2/2006 Legearen araudi aurreikuspen zehatzik ez egoteak esan nahi du legezko hutsune bat dagoela. Hori dela-eta justifikatuta dago analogikoki aplikatzea foru aldundiari bateragarritasun plangintzaren onespena esleitzen dion xedapena”

Horri buruzko iritzia eman zuen baita Auzitegi Gorenak ere 2014ko maiatzaren 27ko 3355/2014 Epaian (3906/2011 errekurtsoa). Horren arabera, Gipuzkoako Foru Aldundiak hirigintza eskumena du lau udalerriri eragiten dien Pasaiaiko Portuaren zerbitzugunearen antolamenduko plan berezia hasiera batean onesteko.

2/2006 Legearen 92. artikulua bateragarritasun plana egiteari, izapidetzeari eta onesteari buruzkoa da, eta hartan jasota dago foru esku hartzea egongo dela bakar-bakarrik eraginpeko udalerriek horretarako akordiorik lortu ezean.

«1. Hirigintzako antolamenduko planak udalerri bateko lurzorua baino gehiago hartzen duenean, eragindako toki entitateetako bakar batek egin ditzake formulazioa eta izapideak, hala badagokio, udal guztien artean iritsitako akordioaren arabera.

2. Akordiorik ez badago, foru organoak –arazoak lurralde bakar bati eragiten badio– edo Autonomia Erkidegoko organoak –lurralde bati baino gehiagori eragiten badio– bi hilabeteko epea ezarriko du akordio hori lortzeko. Epe hori amaituta akordiorik lortu ez bada, foru-administrazioak edo Autonomia Erkidegokoak –dagokionak– bateragarritze plan bat egin, izapidetu eta onartuko du. Izapideetan, entzunaldia eskainiko zaie arazoarekin zerikusia duten toki entitateei».

Azken batean, Arabako Foru Aldundiak eskumena du Ekian Berri parke fotovoltaikoaren plan berezia izapidetzeko eta, hala badagokio, onesteko, 2/2006 Legearen 92. artikulua, bateragarritze plana formulatu, izapidetu eta onesteari buruzkoa, parekotasunez aplikatuta. Artikulu horrek, hala ere, eragindako udalerriek horretarako akordiorik lortzen ez dutenentarako baino ez du aurreikusten aldundiaren esku hartzea. Hori dela eta, Arabako Foru Aldundiak plan berezia izapidetu eta, hala badagokio, onetsi aurretik, bi hilabeteko epea eman beharko zaie eragindako udalei, horietako bat plana izapidetzeaz arduratu dadin akordio batera irits daitezen.

Horrenbestez, dauzkadan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Ekian Berri parke fotovoltaikoaren plan bereziaren eraginpean dauden udalei bi hilabeteko epea ematea udal horietako batek haren izapidetzea eta onespena bere gain hartzen dituen akordioa lor dezaten.

Bigarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Hirugarrena. Ebazpen hau Ekian Berri, EIE enpresari jakinaraztea, bai eta Arratzua-Ubarrundiako eta Vitoria-Gasteizko udalei ere.

Laugarrena. Izapide egintza ez kualifikatuaren izaera duen foru agindu honen aurka ezin da errekurtsorik aurkeztu.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko irailaren 2a

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko diputatua
LAURA PÉREZ BORINAGA